

KRONIKA.NET



SAGARDOAREN LASTERKETAN, IZEN EMATEA

Sagardoaren lasterketan, izen ematea

Ia bederatzi kilometroko ibilbidea izango da, Hernaniko sagardotegietatik barrena. Otsailaren 22an jokatu da, 11:00etan, arraun elkartetik aterata. Aurrez izena emateko epea zabalik dago www.kirolprobak.com web orrian; egunean bertan ere, izango da aukera.

2014/01/23 - Osteguna

Sagardoaren lurraldean barrena egiten den lasterketarako prest dago guztia. Sagar Lasterraren 8garren edizioa jokatu da datorren otsailaren 22an. 8 kilometro eta 900 metro izango dituzte aurretik partehartzaileek. 11:00etan hasiko da lasterketa, Hernaniko arraun elkartean eta sagardotegi gehien dituen auzoan barrena egingo dute korri, sagasti eta paraje ederren artean; helmuga Kiroldegiko sarrera izango da. Atletismo taldeak antolatzen du lasterketa, eta tiradizo haundiagoa du urtetik urtera: 300dik gora lagun espero dira, aurten ere. Txotx denboraldiaren barruan antolatzen da proba eta kirola eta festa uztartzen ditu, egun haundi honek.

Izen ematea, zabalik

Proban parte hartu nahi dutenek zabalik dute izena emateko epea. Aurrez, internet bidez eman behar da www.kirolprobak.com orrian; txip horiaren prezioa 8 eurokoa da; eta txuriarena, 10 eurokoa. Egunean bertan ere, izango da aukera. Lasterketa hasi aurretik izango da izena emateko tartea; kasu honetan, txip horia eta txuriaren prezioa 15 eurokoa izango da.

 Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

HERNANIARRAK

GEHIGARRIA: Zaindu zeure burua

Ibilbide Sarea: Urruzuno

Ibilbide Sarea: Larregain

Ibilbide Sarea: Oberan

Ibilbide Sarea: Usokori bira

Ibilbide Sarea: Sagardotegiak



BESTE HEDABIDEAK TOKIKOM

NOAUA! ASTEKARIA:
?NERABEEN
SEXUALITATEA?
GURASO ETA
HEZITZAILEEI
ZUZENDUTAKO SEXU
HEZIKETA IKASTAROA.
IZENA EMATEKO EPEA
IREKIA

NOAUA! ASTEKARIA:
Lurralde antolaketak eta hirigintzak euskal hiztunengan duen eragina, kontuan hartzeko deia

NOAUA! ASTEKARIA:
Inauteri Festarako mozorroa, zuen esku